

ESPAINIARRREN ETA EUSKALDUNEN ARTEKO GERRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Potosi (egungo Bolivia), 1622ko ekainaren 8a. Garai hartan Peruko Erregeordeariaren parte zen hirian, Juan Urbietta euskalduna hil zuten, eta bikuinen eta euskaldunen arteko gerra piztu zen. Bikuinak espainiarrak ziren, nagusiki gaztelarrak, andaluziarrak eta extremadurarrak; animalia horren ilez egindako txanoak eraman ohi zituztelako esaten zieten horrela.

Potosi Cerro Rico (kitxuaz *Sumaq Urqu*) mendiaren magalean dago. Eta Cerro Rico zilarrez beteta zegoen garai hartan. Gatazka hasi baino 60 bat urte inguru lehenago hasi ziren zilar meak ustiatzen eta hasieratik euskaldunak izan ziren nagusi negozio horretan. Bartolome Arzans de Ursua y Vela (1674-1736) Potosiko kronikagilearen esanetan, bailarako 132 *ingenio*etatik 80 "nazio horren" esku zeuden, euskaldunen esku, alegia. Zilarra erauzteko instalazioei eta makinei esaten zieten *ingenio*. Hala, kopuruz gutxiengoa izanagatik, euskaldunen esku zegoen botere ekonomikoa eta, ondorioz, baita politikoa ere.

Arzansek berak "euskal hegemonia" hitzekin definitutakoa hausten saiatu ziren bikuinak, modu baketsuan hasie-



BERNARD LENS / THEODOOR DE BRY

Ezkerrean Potosi herria, Cerro Rico mendiaren magalean. Eskuinean, Cerro Ricoko zilar meatzeetako lana. Bi grabatuak XVII. mendekoak dira, bikuinen eta euskaldunen arteko gerraren garai bertsukoak.

ran. Baina 1622ko Potosiko kabildorako hauteskundeak berriro ere euskaldunek irabazi zituztenean, beste bide batetik jotzea erabaki zuten.

Bikuinek Juan Urbietta hil eta bihararmunean, euskaldunak kalera atera ziren hilketa mendekatzeko asmoz. Arzansen hitzetan, "*diziendo en su lengua ¡el que no responde en vascuense muera!*", euskaraz egiten ez zuen oro hilko omen zutela, alegia. Muturreko hizkuntza politika hura ez zen eraginkorra izan, ordea. Alderantziz, euskal hiztunen kopuruak egin zuen behera; 1624ko martxorako 64 ziren hildakoak euskaldunen aldean. Bikuinek esperientzia handiagoa zuten

gerra kontuetan eta gatazka irabaziko zutela zirudien.

Baina bikuinak zatitzen eta, ondorioz, ahultzen hasi ziren eta euskaldunek, berriz, bat eginda eutsi zioten, behingoagatik. Azkenean, hiru urteko liskar, arpilatze eta kontu-garbitzeen ondoren, 1625eko apirilaren 19an barkamen orokorra deklaratu zuten. Berdinketa teknikoak ez zuen aldaketarik ekarri eta, praktikan, euskaldunek aurrez zuten nagusitasunari eutsi zioten.

Hurrengo urtean, 1626ko martxoaren 15ean, emaitza hura berdintzeko edo, uholdeek Potosiko *ingenio*ak suntsitu zituzten. ■



GRAN ACUÍFERO MAYA / INAH

Urak askotariko altxorrak gorde ditu Yucatánen

Mexikoko Antropologia eta Historia Institutu Nazionalak eta National Geographic Societyk *Gran Acuífero Maya* proiektua jarri zuten abian, Yucatángo penintsulako urez betetako hainbat kobazulo ikertzeko. Honez gero, gonfoterio –egungo elefanteen arbaso– baten baraila (argazkian), eta penintsulako lehen giza biztanleena izan daitekeen

garezurra aurkitu dituzte, biak duela 10.000 urte ingurukoak. Maien aldare bat eta osorik dagoen murko bat ere aurkitu dituzte. Eta aurkikuntza material horiek nahikoak ez balira, denboran zehar kobazulo horietan uraren mailak izan dituen gorabehereri esker, klima aldaketari buruzko datu baliagarriak jasotzen ari dira. ■